



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2026ko urtarrilaren 13a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>


Joyce Carol Oates

(Lockport, New York, 1938)

Joyce Carol Oates estatubatuar eleberrigile, ipuingile, poeta, antzerkigile, saiakeragile eta editorea da. Rosamond Smith eta Lauren Kelly ezizenak ere erabili ditu idazteko. Ehun liburu baino gehiago argitaratu eta sari ugari eskuratu ditu, eta garai guztietako idazle estatubatuar handienetako bat da.

Black Water (1992), *What I Lived For* (1994) eta *Blonde* (2000) eleberriak eta *Lovely, Dark, Deep: Stories* (2014) ipuin laburren bilduma izan ziren Pulitzer sarirako finalistak. Sari asko irabazi ditu bere idazlanengatik, besteak beste, National Book Award *Them* (1969) eleberriatatik, bi O. Henry Awards, Giza Zientzien Domina Nazionala eta Jerusalem Prize (2019).

Bortxaketa: amodiozko istorio bat



Uztailaren Laua da Niagara Fallsen, New York estatuan. Jai eguna. Hobe zuen Teena Maguirek etxera itzultzeko lasterbidea hartu izan ez balu. Ez gauerdia ondoan, behintzat, ez Rocky Point Park-en barrena. Ezta jantzita zihoan moduan ere: Elastiko tiranteduna, gona bakero laburtuak, aurpegia inguratzen zioten txima kizkur horixkak. Zangoak agerian eta takoi altuko sandaliak, janzki estu sexyak, zer nahi zuen? Hamabi urteko bere alaba Bethirekin, gainera. Hormonek, haserreak eta alkoholak aske utzitako mutil kuadrillak dabilta inguru haietan. Talde-bortxaketa baten biktima suertatu da parkeko txalupategian. Ordura arteko haren bizi-poza amaitu da, amaitu dira haren ibiltzeko manera

askeak. Handik aurrera, bizirik atera izanaz damu da. Bethie alabak, berriz, ia ezin du haurtzaroa gogoratu izu-ikararik gabe. Identifikatu zituen gazteak beren etxetik oso gertu bizi dira, auzoak dira ia. Erritmo errukigabe eta sinesgarria darabil Joyce Carol Oatesek Teena, Bethie eta beren erasotzaileen historia garatzeko gaueko oihu bakartiek eta arratsaldeko beldurrezko xuxurlek markatuta. Eta maitasunak.

Joyce Carol Oatesen argitalpenak euskaraz

Bortxaketa: amodiozko istorio bat () N-4 OAT

Xabier Olarra

Xabier Olarra (Tolosa, Gipuzkoa, 1953) euskal idazlea eta itzultzailea da. Hiru aldiz irabazi du itzulpengintzako Euskadi saria: 2006an, Raymond Queneauren *Estilo liburuak* lana euskaratzeagatik; 2012an, Arantzazu Royorekin batera, Alaa Al-Aswaniren *Jakobian eraikina* liburua itzultzeagatik; eta 2016an, berriz, James Joyceren *Ulises* lanaren itzulpenagatik. 2013an, Dabilen Elea saria ere jaso zuen, egindako ibilbideagatik, eta 2025ean Itzultzaile Baten Lanari Sari Nazionala jaso zuen.

Kritikak esandakoak

“Maite du probokazioa eta irakurlea jokoan kanpo uztea Joyce Carol Oates idazle estatubatuarra, eta Amodiozko istorio bat azpi-izenburu paradoxiko eta ironikoa paratu zion Bortxaketa eleberri honi. Jatorriz duela hogeitau urte plazaratutako liburuak, dena den, bortxaketa baten eta haren ondorenen kontakizuna du ardatz nagusi, New York estatuko Niagara Falls hirian kokatuta. Teena Maguire protagonista bortizki erasotu, bortxatu eta kolpatu zuen mutil gazte talde batek, 12 urteko alabarekin batera etxerako bidean parke bat gurutzatzen ari zela, uztailearen 4 bateko gauerdia pasata. Konortea galtzera arte kolpatu zuten Maguire, eta txalupategian bertan lurreen laga, alaba hurbiletik so zuela.

Gertaera bortizetan bortizak Teena nola suntsitzen duen kontaktzen du eleberriak, bortxaketaren traumak nola uzten duen subjektu gisa heldulekurik gabe, bizitzeko kemenik gabe, are bizirik iraun izanaz damu. Gerora eta atalka baino ez du gogoratu ahal izango gertatutakoa ere. Pasarte laburretan baina aldi berean gordin eta sakon jasotzen du nobelak sexu-indarkeriaren biktimaren bizitza ez ezik haren ingurukoena ere (bereziki Bethie alabarena) nola geldiarazi eta amiltzen den. Baina bortxaketaren mina ez da gau hartako erasoan geratzen. “Merezita zeukan” izenburua darama liburuko lehen kapituluak, eta bortxaketaren ostean hirian zabalduko zurrumuru, espekulazio eta gezurrek protagonista erasoaren erruduntzat nola jotzen duten jasotzen du narratzaileak, bizilagunen ahotsen oihartzunak jaso, gertatutakoaren bertsio erabat alderantzik nola zabaltzen den erakutsiz. Lehen orritik eta itzulgingururik gabe jartzen dio irakurleari aurrez aurre Carol Oatesek bortxaketaren ostean sarri emakumeek bizi behar dutena: jasan dutenaren errudun bilakatzea, beraien janzkera, portaera edo izaera medio.

Poliziaren ikerketak, medietako albisteen bertsioak eta epaiketaren aurreko entzunaldi-saioa datoz gero, eta beste behin amorrus deskribatzen du narratzaileak Maguirek jasan behar duen berbiktimizazioa, egiarekin zerikusirik ez duten bertsioak entzun beharrekin hasita. Ahots ugari jaso

arren, gertaeren egia hasieratik ebatzita uzten digu narratzaileak, eta horregatik egiten dira mingarri defentsa-abokatuaren hitzak, egiaren izaera ezbaian jartzen dutenak: “Egiaren erakarpena indarretako bat besterik ez da, eta ez beti ahaltzuena”. 1990etako AEBetako justiziaz ari da Carol Oates, baina ez du gaurkotasunik galtzen 2024tik eta Euskal Herritik irakurrita.

Sinesgarritasun erabatekoa lortzen du idazleak nobelan, hainbestearino ze batzuetan gogorarazi egin behar izan baitiot nire buruari fikziozko lan bat dela hau. Odol hotzean edo gaur eguneko true crime kontakizunak etorri zaizkit burura, eta ez darion sinesgarritasunagatik soilik. Erritmo bizi-biziz idatzitako narrazioak polizi nobelaren osagaiak ere biltzen ditu, bigarren mailako pertsonaia Droomor agentearen bidez nagusiki, eta konta-teknikek ere bizitasunaren alde egiten dute, eserialdi batean irakurtzeko moduko nobela bihurtuz Bortxaketa hau. Zinematografikotik asko duen kontaketa erabat trebean, aldatu egiten ditu idazleak narratzaileak, txertatu egiten ditu diskurtso askotarikoak eta erabaki egiten du planotik kanpo zer utzi, irakurleari eszena horiek sortzeko tartea ematearren. Gertaeren gordintasun muturrekoa eta kritika sozial sakona kontakizun arin batean bilduta eskaintzen dizkigu hala idazleak, traba handirik gabe irakurtzen den eta irakurlea harrapatzen duen nobela onduz. Eta gordintasunaren eta arintasunaren arteko paradoxa horretantxe harrapatu nau idazleak, bigarrenkoz gutxienez, jokoz kanpo.”

Ibon Egaña / Deia, 2024-02-17

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Joyce_Carol_Oates

https://eu.wikipedia.org/wiki/Xabier_Olarra

Txalaparta

<https://www.txalaparta.eus/es/libros/bortxaketa>

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8907>

EIZIE

<https://eizie.eus/eu/albisteak/xabier-olarrak-jaso-du-itzultzaile-baten-lanaren-sari-nazionala>